




1.—Txori-abija bat eukan Teles'ek eta Niko'k Anton-Andiki'ren solo baten eta egunoro juaten ziran txori-kumak andi egiten-ziranetzik ikusten. Anton-Andiki'k, bein, bere solo-baúban ikusi ebazan, eta gomutaurik bere zalpurtzañari arako baten egin eutzen barabaskerijaz, neska-mutukai txibitia berotuteko eretirik onena zala uste-ixan eban.



2.—Gure txikijok ikaratu ziran Andiki ikuskeran. Erdi iri-bařeka ba-etoñen be, arin zan ezagutu asmo onik ezkarala. Artu ebazan erika-onduan egozan odi edo *tubo* bi eta bata-bestian saftuta beinguan egin eban Zubia erékia busti-barik igaroteko. Teles eta Niko aufez-auf eguna sasitza baten eskutau ziran...



3.—Anton-Andiki'k ikusi ezegixan. Andiki, baña, katu zará ihan, eta non egozan ezpa'lekijan lez beste albora begira joyan zubitik, bat-batian sagutxubai erpia edo makila ezañtzeke. Baña sagutxubak edonondik dabiltzau lez sasipetik odi-zuluan sañtu eta ixil-ixilisk beste alderia igaro ziran.



4.—Anton-Andiki aobete azuregaz gerati zan sasi-atzian itor idoro ezebanian. Non bañabas yozak eurok? inuan. Teles'en bañe-algaraiak erantzun eutsan anka-joko edera egin eutsila. Eta etzan ori bakarik ihan: Anton-Andiki etxeratu gura-ixan zanian ofiak busti biañ-ixan ebazan Teles'ek Zubia erékara jaurti eutsalako. ¡Onek dira mutifak!

## OGENA, IÑORENA

### (IPUYA)

Etxekoandria sukaldetik aldendu zan une berian, katuak okela buñuntzitik lapurru zuen kontu aundiyan.

Pozik okela-zatiarekin, laister zan maipian eskutatu; an bañau puztutada batekin txakurak guzia zion kendu.

Ordian, mai-gañera igota, jaten zegoan txakurari amoñuz txit iratzekita katuak esan zion garbi:

—Lapurru detan okela, ik kendu diak txakurra; ikusten det i aizela lotsagabe ta lapurra.

Geure ogena aurian eta agitz itxu; ai baña iforenian begi argia degu.

## Txakura igeri okela-zatija aguan-ta

Iñorenaren gurakeriz dabiñanari, norberarena 'galtzia egoki yatoñko.

Okela-zatija abuan-eta, uraz-ziañ igeri joyan txakurak ur gañdenezko antzikatu edo ispiluban bere irudija dakus.

Beste zati bat darualakuan, kendu gura dautso; gurakeri onegaz itxutuki, beria izten dau, antzikufan dakusana gana oldafturik, baña berak eroyana galtzia baño besterik ez dau loñzen, utsian geratuta.

Gustija gura daunak

Gustija galtzen dau:

Gitxigaz naiko daunak

Gustija euko dau.